

## 6. Lagun artean



### 6.1

---

Trokako Andres Soloeta, Errekotxeko Antonio Rekaorri, Pedro Egia (*Popon*), Bilbosolako Alfonso Zuloaga eta Idurietako Emeterio Bilbao edo bere anaiaren bat izan leitekeana. Argazkia 1913 aldekoa da. Andres (1896-IV-18 jaio eta 1961-VII-18 hil zana) Kontze Unzueta Agirrezabalagaz (1910-I-26an jaio eta 1979-I-2an hil zana) ezkondu eta Trokan bizi zirean.



## 6.2

---

Arantzazuko gazte koadrilla. Goian, ezker-eskora, Arteako Pedro Lariz, Arantzazugoitiko Eujenio Ipiña eta Olarreko Roman Artetxe; aurrean, makurtuta, Salbideko Gregorio Etkezarraga eta, ezarrita, Olarreko Hipolito Bernaola. Argazkia 1935 aldekoa izan leiteke.



## 6.3

---

Igorreko goiko plazan egoan tabernan (urteatan Errekagorritarrak izan dabena eta oraintsu bota egin dana) egindako argazkia, gerra aurrean. Bertan, ezker-eskaira, lenengo bietako bat Basarteko Juan *gixon*, El Correo egunkarian lan egiten ebana; hirugarrena, Lemoako Olatzeko Gabriel Zuazo Belaustegi eta laugarrena bere oinordekorik zaharrena, Gabriel Zuazo Etxebarria. Aita sei neba-arrebatan zaharrena izan genduan: Gabriel, Josefa, Mari, Madalen, Txomin (bolaria) eta Andres (Santuruko Pedron aita). 1955 aldera hil zan, 65 urteko zala. Gabriel 22 urtetan zehar izan zan Igorreko aitatu tabernan eta Errepublikan ezarri zanean EAJri arrendau eutson goiko pixua.



## 6.4

---

Igorreko koadrilla bat. Honeek korua egiten eben eleizan, kantariak ziran. Argazkia gerra aurrekoa da eta bertan, goian, ezker-eskoira, honakook ikusi geinkez: bosgarrena Igorreko sastrea, Asensio Asua; hurrengoa marianista bat da; zazpigarrena, beko plazako Markos; zortzigarrena, Jaime Urrutzurtu, eta bederatzigarrena, Zakadias Ira-gorri. Ezarrita, bigarrena, Timoteo Atutxa; bosgarrena, Gabalangoa, eta seigarrena, Julian Uriarte, Eustakia Barrenetxeagaz ezkondu eta Arantzazuko errementaria erosiko dauana.



6.5

---

Simon Totorika (ezkerrekoa) eta identifikatu bako koadrilla bat San Adrian aldean, 1936 inguruan. Eskoian ikusten diren neska biak Simonen alaba Mari eta Juanita Totorika Gondra dira.



## 6.6

---

Dimako gazte koadrilla, 1923 aldera. Bertan goian, ezkerrean, Kresenzio Artabe, Arantzazugoitiko Mari Ipiñagaz ezkonduko dana; bigarren (lepoan pañelua albo batera daukana), Patxi Artabe (Kresenen lengusua); eskoian dagoena, Agustin Artabe (Kresenen anaia); aurrean soñuagaz dagoena Oromiño edo Leitoki zaharra ete dan.



6.7

---

Olarragoitiko Kosme Bernaola, Bilboko Manolo Bengoetxea, Katikenako Lontzo Artetxe eta Olarragoitiko Jose Maria Bernaola Gorbaieko kurutzean 1956 aldera.



## 6.8

---

Arantzazuko koadrilla; ezker-eskora, orduan herrian sekretario egoana, Karmen Artabe, Segunda Aldape, Miren Atutxa, Inazia Uria, Faustina Duñabeitia, Luzia Iturrino, Juan Jose Iturrino, Petra Pujana, Maritxu Etxebarria, Antolin Barrenetxea, Maxima Inunziaga, Begoña Soloeta, Lourdes Etxebarria, Patxi Atutxa, Serafin Rekagorri, Ruperto Landajo eta Karmen Soloeta. Argazkia Amabirjiñea prozesiñoan etorri zen egunekoia izan leiteke, 1948-V-22koa.





6.9

---

Olarragoitiko Bartolome Bernaola Arbe (1879-VI-25ean jaioa) eta identifikatu bako adiskide bat. Arantzazuko Domingo Bernaola eta Felipa Arbe Pujanaren seme dogu Bartolome (beste hiru neba-arraba, behintzat, izan ebazan: Jeronima, Pedro eta Maria). Bartolome Josefa Elexpe Zabalagaz ezkondu zan 1914-II-12an eta bederatzi seme-alaba izan ebezan, Juliana, Mercedes, Mercedes, Jose Maria, Julian, Kosme, Maria, Kristina eta Paula. Bartolome 1950-II-8an hil zan; bere emazte Josefa, 1938-X-27an.



## 6.10

---

Lagun koadrilla mendira joanda. Ezker-eskora, atzean, Tomas Ipiña, Lorenzo Artetxe eta Pedro San Anton; aurrean, Jose Ramon Iturbe (Olarreko errotazarreko semea) eta Pedro Rekagorri. Argazkia 1947 aldekoa da.



**6.11**

---

Sinforoso Bilbao Garai eta Bizente San Anton Rekagorri Igorreko eliza aurrean, 1952 aldera. Bizente 1958-III-21ean joan jakun, 27 urteko zala, gaxotasun batek jota.



**6.12**

---

Bizente Ordeñana Goikoetxea eta Lorenzo Artetxe Etxebarria 1930 aldeko argazki batean.



## 6.13

---

Arantzazuko koadrilla bat. Ezker-eskoiara, atzean, identifikatu bakoa, Juan Yurrebaso Soloeta (1926-XII-27an jaio eta 1982-VI-22an hil zana), Jose Etxebarria, Pedro eta Rafael Reka gorri, Jose Uribarri, Santiago Madrazo eta identifikatu bakoa; aurrean, identifikatu bakoa, Txomin eta Lorenzo Artetxe, Antonio Reka gorri, Joakin Bilbao San Anton (1984-VII-30ean hil zana, 61 urteko zala), identifikatu bako bat eta Serafin Reka gorri. Argazkia 1944 aldekoa da.



6.14

---

Domingo Uria Bikandi eta bere adiskide handia zan Jose Larrandaburu, euskaldunen seme, Uruguayn, 1935 aldera. Domingo Iberbekoan jaio zan baina, 13 urte ebazala, Uruguayra joan zan bere osaba Jose Uriagaz.



## 6.15

---

Argazkia Tomas Ipiña eta Rafaela Etxebarria ezkondu ziranekoa da, 1945. urtean. Tomas eta Rafaela erdian ezarrita dagoz. Ezkerretik hasita, lenengo gizona Eujenio Ipiña da; segiduko neskea Maria Etxebarria (Rafaelan lloba); soinularia baino lenagoko gizona Sabin Totorika da; soinularian ondoko neska, Elisa Etxebarria (Rafaelan lloba); Rafaelan ondoko mutile, Segunda Aldapen lloba; hurrengoa, Segunda bera; hurrengo neska (zuriz dauana), Eufemia Etxebarria (Durangon bizi dan Rafaelan lengusina); hurrengo andrea, Dionisia Etxebarria (Rafaelan izekoa); atzean, don Pedro Artabe (Kresen Artaberen anaia) eta eskoirenekoa, Serafin Ureta.



## 6.16

---

Olarran gariak ebagi eta trilletan joandako koadrilla 1953 aldea. Ezkereskoira, zutunik, Santanderreko bat (honek Santanderretik Urikoara ganaduak ekarri eta saldu egiten ebezan gero), Arteako Santamañeko Abrisketatarra, Biktoriano Artetxe, Benazio Bernaola (orduan garia trilletako makinea eukiten eban), Julian Artetxe eta Bildosolako Biktor; ezarrita, Barañaio alderdiko botetxea, Matilde Artetxe, Paula Bernaola eta Rafael Artetxe.





**6.17**

---

Egunean egunean galtzean doan arren, beti izan da San Antonioetan Urkiolara errogatiban joateko ohiturea. 1949-VI-16an egindako argazki hau ohitura horren erakusgarri dogu eta bertan Arantzazuko koadrilla handia ikusi geinke, Urkiolan.



**6.18**

---

Atzean, zutunik, Sekundina Soledad Ines Aldai (Tomas Etxezarragan ama), Mari Uriarte, Kandida Rekagorri eta Juli Bernaola; aurrean, Bekotxen bizi zan andra bat, Tomas Etxezarraga eta Dorita Txaskoa. Argazkia 1965 aldera egina da, Salbiden, gari ebagiten joandako egun batean.



**6.19**

---

Gorbaien, 1951 aldera egindako argazkia. Ezker-eskora, Santi Larrakoetxea, Eujenio Ipiña, Jazinta Larrakoetxea, Juan Intxausti, Jon Soloeta, Serafin Rekagorri, Begoña Soloeta, identifikatu bakoa (botatik edaten dauena), Txomin Larrakoetxea eta Andres Soloeta.



**6.20**

---

Arantzazuko koadrilla Gorbaieko kurutzean. Argazkia 1944 bueltakoa da eta bertan, beste askoren artean, Kosme Bernaola, Manolo Bengoetxea, Maxima Inunziaga, Loli Intxausti, Kandida Rekagorri, Garbiñe Atutxa, Mari Etxezarraga, Jesus Etxebarria eta Patxi Atutxa ikusi geinkez.



6.21

---

Arantzazuko gazte koadrilla, 1956 aldera. Goian, zutunik, ezker-eskoira, Jabier Landajo, Juliana San Anton, Esteban Elexpe, Ana Maria Bernaola, Luis Uriarte, identifikatu bako bat, Karmen Artaraz eta Karmen Uriarte; aurrean, makurtuta, Patxi Etxebarria, Josefina Etxebarria, Txomin Larrakoetxea, Lourdes Etxebarria eta Daniel San Anton.



## 6.22

---

San Faustoak Aranduin, 1943 aldera. Goian, ezker-eskora, Biktor Kortazar (Elezkaokoa), Igorreko Julian Iruarrizaga, Juan Ugaldek behar egiten eban Etxebarria tallerreko ugazaba, Usubeleko Julian Landajo, Ilumbeko Luis Uria (buzterriak eta egiten ebazana), Mendiolako Juliana Uria (Ugaldetarren lengusina eta Biktor Kortazarren emaztea), Mari, Pantxi, Juan eta Jose Ramon Ugalde (aita); erdian, Angel, Leonardo eta Justa Ugalde, Julian Landajo (semea), Modesta Ugalde (Pantxin aizta); aurrean, Rikardo Ugalde (Pantxin nebea), Igorreko Jose Atutxa (Leonardon andrearen nebea), Luzia Kortazar (Biktor eta Julianaren alaba), Igorreko Jose Arandia eta Patxi Ugalde, Angel Ugalderen Gernikako soldadutza laguna).



6.23

---

San Adrianen 1950 aldera egindako argazkia. Bertan, zutunik, Kelen arrabaren bat, identifikatu bakoa, Juliana San Anton, Fruktozo San Anton eta Pedro Kele; ezarrita, Bekotxeko Klaudio Bilbao, identifikatu bako bat, Juanita Totorika, Daniel San Anton eta Kandido eta Luzi Iturrino.



6.24

---

Arantzazuko neska koadrilla Begoñako Ejerzizio etxearen aurrean, 1954 aldera. Arantzazukoak diranak, aurreko iladan, ezker eskoira, Lourdes Etxebarria, Garbiñe Atutxa eta Begoña Soloeta; atzean, Isabel Bernaola, Mari Landajo, Miren Madrazo eta Juanita Etxebarria. Gainontzekoak ez dira Arantzazukoak.





**6.25**

---

1960 aldeko argazkia Arantzazuko karnizerien. Igorreko Mimintzeko Aldai, Ruperto Bernaola eta Jabier Landajo (1995ean hil zana, 56 urte gaz). Orduan Aldai karnizeru ikasten ei egoan eta hiru gazteok ez eben okasiñoa pasetan itxi gura eta emen doguz ofizioa ikasten.



6.26

---

1964 aldeko argazki honetan Justo Madrazo, Toribio Bilbao, bere alaba Ana Mari eta Arteako *Turture*. Atzean, erdi ilunetan, Franzisko Etxebarria. Argazkia Toribion sendiak zubiko etxean taberna eukeanekoa da.



6.27

---

Olarreko Jose Uribarri, Salbideko Frutoso San Anton eta Iber-goiko-ako Daniel Manzarraga Orduñako Amabirjiñaren aurrean aita Juan Josegaz eskursiñoan joanda, 1969 aldera.



## 6.28

1961 aldeko argazki honetan Jazinta Larrakoetxea eta bere seme Antonio Ipiña ikusi geinkez, urteatan izan eben *kinkalla* aurrean. Kasintak euki eban alderdia ganaduak pisituteko baskulea zan eta orduan Agustin Uria alkateari eskatu eutson lokala. Beste alderdia beti izan zan karnizeria; lenengo Burgoatarrak euki eben, aldikada luze bat arratoien solasleku izan zan eta azkenean Zeanuriko *Turkok* hartu eban.



6.29

1969ko Gabon egunean egindako argazkia. Orduko ohiturari jarraituz, etxerik etxe kantetan joanda, Arantzazuko gazte koadrilla Fasio soinu-laria lagun dabela. Ezker eskoira, Bizente Ordeñana, Jose Luis Atutxa, Rosa Mari Bengoetxea, Amaia Etxezarraga, Jon Etxebarria, Puri Ipiña, Jesu Mari Etxebarria, Jesus Angel Etxebarria, Esther Manzarraga, Fasio, Sabino Ibarra. Jose Luis Lekue eta Elias Artabe. Makurtuta, Maria Jesus Lekue, Amaia Atutxa eta Dikantxi Bengoetxea.